

# Anaia handia eta ahizpa txikia

Amaia Alvarez Uri



*Reality show* berriaren izena Concentration da. Bertako partaideek ez dute casting bat pasatu, kalean bahitu dituzte eta platora eraman. II. Mundu Gerrako kontzentrazio eremu baten antzera prestatu dute platoa eta zaindariak eta presoak bizi dira han. Egun bakoitzaren hondarrean bi preso hilko dituzte, ikus-entzuleek sms-en bidez alde zuzenetik aukeratutakoak. Bizirik geratzen denak irabaziko du. Hau da Amélie Nothomben azken eleberraren argumentua, fikzioa beraz, baina azken aldian telebistak hartu duen norabidea ikusita, eta adibide gisa aurreko ikasturte amaierako The Big Donor Show, edonork sinistu lezake aurrekoa.

Kazetaritza eta publizitate fakultateetan esango digute telebistaren helburuak informatu, entretenitu eta irakastea direla eta aditu batzuek diotenez reality show-a da telebistako generorik osoena, saio gorena, haien ustez, hiru helburuak betetzen dituen programa mota bakarra. Saio mota honen zaleek, bestalde, morboa eta kuriositatea aipatzen dituzte amu gisa, ikaskide eta lankideekin mintzagaia edukitzeko bidea, besteak beste.

Telebistak 50 urte bete ditu jada eta “ikusleari nahi duena eman ahal izateko” bide luzea egin eta gero arrakasta handia duten saio hauek eskaini dizkigute: reality show-ak eta “bihotzeko programak”. Ikus-entzulea pantailaren aurrean orduak pasatzen ditu bere begien parean pertsona batzuek besteak etengabe iraintzen, gutxiesten eta makurrarazten dituzten bitartean. Eta zertarako? Pertsona batek psikologikoki apurtu arte zenbat jasan dezakeen ikusteko? Eraso hauen aurrean zelan erantzuten duen ikusteko? Adituek arrazoiak dute, saio hauek dira gure XXI. mendearen generorik gorena ikusleari hiru helburuak lortzen laguntzen baitizkiote: Informazioa: “Gure jendarteak telebistan agertzen denari ematen dio balioa, prestigioa, boterea”; Entreenimendua: “Begira ezazu telebista eta ez pasatu denbora pentsatzen, sortzen edo jendearekin harremanetan” eta Irakaspena: “Bizitzan arrakasta lortzeko moldatu zure gorputza (zirugia, arropa, dieta) eta ikasi esanekoa eta atsegina izaten”. F